

Santa Ageda (edo Agata) bezpera edo Santa Ageda eskea Euskal Herriko jai tradizionala da, otsailaren 4ko iluntzean ospatzen dena, Santa Ageda egunaren bezperan alegia. 235 urtean Sizilian jaiotako Agata Cataniakoaren omenez ospatzen da, zeinari bularrak moztu zizkioten hango Kinziano gobernadorearekin ezkondu nahi ez izateagatik.

Euskal Herrian neguko solstizioko jaiekin loturik dago, neguaren bukaera eta naturaren esnatzea ospatzeko. Ospakizunean lagun taldeak koplak zaharrak kantatzen dituzte, makilekin lurra joaz koplaren erritmoa jarraitzeko, herrian zehar eskean, gero elkarrekin afari bat egiteko. Bertsoak koplakari batek kantatzen ditu, eta besteek leloa. Garai batean adin bereko mutilak bakarrik ibiltzen ziren, toki batzuetan soldaduskara joan behar zirenak.

Santa Ageda bezperako koplak



Gizapedia

gizapedia.hirusta.io

Santa Agedako koplak: Gipuzkoa

Tradizionala

Zorion, etxe hontako denoi
oles egitera gatoz,
aterik ate ohitura zaharra
aurten berritzeko asmoz.

Ez gaude oso aberats diruz,
ezta ere oinetakoz.
Baina ezta ez sano gabiltza,
ta kanta nahi degu gogoz.

Santa Ageda bezpera degu
Euskal Herriko eguna,
etxe guztiak kantuz pozteko
aukeratua deguna.

Santa maitea gaur hartu degu
gure bideko laguna.
Haren laguntzaz bete gentzake
egun hontako jarduna.

Manex Mujikaren gehigarria (2018)

Goratu zagun Agata santa
bihar bere egunean.
Herri honetan bizi gaitezen
pake eta osasunean.

Diru pixka bat biltzera gatoz
gaur gu bere izenean
biltzen degunaz lagundutzeko
herriko gaixotegia.n

Zorioneko izango al da
etxe hau beti betiko
gu bizi garen arte guztian
gogoan degu edukiko.

Maitagarria delako eta
orain bukatu orduko
agur eginik amaitzen goaz;
beste batera joateko.

Santa Ageda bezpera denez
Zuengana gatoz kantuz
Euskaraz bizi nahi degu
Ohitura zarrak mantenduz.

Gure auzoa gaur hartu degu
Aitzakitza kanturako
Ohitura zaharrei eusten diena gazte
mantentzen delako.

Lehen baserri baserri zena
gaur etxerik etxe doa,
makilen hotsak bay egiten du
gaurkoa eta lehengoa.

Eskerrik asko bertako denei
gozatu degu aukera
hurrengo urtean Agate lagun
berriz etorriko gera.

Santa Agedako koplak: Bizkaia

Nork esango dau zer pasa zuan
munduan Santa Agedak
lehendabiziko azotaduta
kendu zioten bularrak
gorrotoaren indarrak
jentilen bihotz gogorak
instante baten estaldu zion
gorputz guztia odolak.

Santa hau preso sartu zanian
zan milagro bat handia
zeruetatik jaitsi zaiokan
Jainkoaren argia
milagro ikaragarria
Santa honen alegria
San Pedrok berak kuratu zion
Santa honi gorputz guztia.

Berrero gogor hoiek diote
hilgo da gaurko gabian
lehen bezain firme bilatu euden
Santa hau biramonian
esan zioten onian
nahi bozu gure legian
bestela presentatuko zera
Kinzianoren aurrean.

Berriz Enperadoreak dio
eramateko hargana
dontzella gaztearen bihotza
lehen bezain firme darama
Jaun zerukoak emana
orain berakin duana
zer amodio handia zeukan
gure Jaungoikoagana.

Soldadu batek galdetzen dio
zeinek zegoen isilik
adorakezu gure jaungoikoa
egon nahi bozu bizirik
hitz hori ando aditurik
Santak diotso bakarrik
nik adoratzan dedana bao
ez daga gizon besterik.

Zer balorea eraman zeuden
etsai gaiztoan aurrera
humildadezko bere begiak
itzuli ziran lurrera
Enperadore kruela
hau beti bere legera
arrastaka ta desonratuaz
atera bedi kalera.

Orduan erantzun zion
Jaungoikoari graziak
bao berrero jentil gaiztoak
zeuden gorrotoz josiak
Santaren fede bizia
Jaunaren probidentziak
lurrak ikara egin zuen ta
harritu ziran guztiak.

Paret handi bat erori zan da
ikara haren puntuan
Enperadore honen lagun bi
azpian hartu zituan
ikusirik hau orduan
haiek halako moduan
ze milagroak gertatu ziran
Santa honekin munduan.

Jentil gogorren eskuetatik
sartu zun kalabozoan
agoniako ordu santuan
ondo ezagutu zuan
hiltzen zegoan orduan
Jesusi hoska zegoan
orain gloriak gozatzen dago
angeruekin zeruan.

Kristau debato batzuek
zuten sartu gorpu santu
Kataniako ziudadian
balta ere enterratu
kristauak kontsideratu
hau honela zan gertatu
karidadeak ematen dunei
berak hori die pagatu .